

Gabikeko euskerie

**EREÑOKO GABIKA AUZOKO HIZKERAREN
AZTERKETA DIALEKTOLOGIKOA**

Asier Gabikagojeazkoa - Eurasiatik.eu - 2015eko Maiatza

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Gramatika	6
2.1. Fonologia	6
2.1.1. Azentua	6
2.1.2. Bokalak	6
2.1.3. Diptongoak	7
2.1.4. Hiatoak	8
2.1.5. Kontsonanteak	9
2.2. Morfologia	11
2.2.1. Izen morfologia	11
2.2.2. Aditz morfologia	12
2.3. Sintaxia	15
3. Lexikoa	16
4. Ondorioak	17
5. Bibliografia	20
6. Lekukotasunak	21

1. SARRERA

Euskal Herriko herri baten hizkera aztertu behar nuela entzun nuenean berehala Gabika otu zitzaidan. Birritan edo harrezkero han egonda, Gabika neure arbaso bizkaitarren sorburutzat nuen aspalditik. Familian igaro den mende hasieran galdu omen zen euskara, Bilbora aldatuak zirela, transmisio-katea amamarekin hautsi zen. Edozelan ere, uste nuen Gabikan eta inguru horretan amamaren asabek erabiltzen zuten hizkera nolakoa izan zitekeen aurkitzea zegoela.

Otsailean, elurte handi baten ostean, hara abiatu nintzen eta bertakoei galdezka laster topatu nuen Gabikako Gabikagojeaskotarren baserria. Denborarekin estu ibili arren, Ramonek eta Lurdesez gozoro hartu ninduten euren etxean. Ramon (66 urte) Gabikan jaio zen eta (berak kontatzen duen legez) hango eskolan ikasi zuen txikitatik; gurasoengandik ikasi zuen bertako euskara (gaztarora arte inongo erdaraz jakin gabe). Berrogei minutuz edo eman genuen hizketan; orduko grabaketa dugu lan honetarako lehengai.

Informatzaile bakar baten esanetan egoteak desabantail mordo bat badakartza: bere idiolektoak ez du zertan Gabika aldeko hizkera zehatz eta mehatz islatu. Izan ere, bera urte askoz Gernikan bizi izan da, eta han ere lan egin du. Horretaz gain, emaztea Muxikakoa du. Hortaz, informatzaile gehiago erabiliko dituen lan sakonago baten esperoan, hauxe dugu oraingo emaitza.

Gabikako hizkerak izaera propioa izango ote du?

Gabika Ereñoko auzo bat da, eta beraz ofizialki Ereñoko udalerrri barruan dago. Hala ere, Nabarniztik (aldameneko udalerritik) hurbilago dago, Ereñoko herrigunetik baino.

Ereñok berak berrehun biztanle baino apur bat gehiago dauka; Nabarnizek, antzeko biztanleria dauka. Biak ala biak Busturialdean daude, Gernikatik ekialdera, lurralde menditsu batean.


Gabika auzoak hogeit hamar bat etxe (baserri) izango ditu, eta nekazal munduan sartuta dago erabat.

Dialektologiaren aldetik, oso interesgarria gertatu dakiguke Busturialdeako euskara, mendebaldeko euskalkiaren eremuan egonda ere, sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkien tarteko hizkeratzat jotzen delako. Are gehiago, Ereño eta Nabarnizko hizkerak Lea-Artibaiko hizkerarekin mugan leudeke; sortaldeko azpieuskalkiaren eragina nabarmena izan daiteke eta.



Ereño (eta Gabikako) euskara Bermioko azpieuskalkian sartzen du Yrizarrek¹. Aspaldian Bermiok, eta oro har kostaldeak, garrantzi handiagoa zeukalako, noski, arrantzatik zetorkion ordaina; itsasoari begira luzaro bizi izan dira lurralde honetako biztanleak. Izan ere, nire arbasoak Ibarrangelun (eta ez Gabikan) bizi zirela, itsasgizonak ziren eta. Barrualdean lurrik gabe ez zegoen bizitzerik, eta hala izanda ere, nekazaritza nekez bizi izan zitekeen.

Gaur ez ote dira biziko Gernikari begira²? Eta beraz barrualderantz, Bermioko eraginetik urrunduz doazela? Apika, soilik aspaldiko hitzetan dirauten ezaugarriak botere aldaketa honen lekuko dira.



1 Yrizar 2008. Berak aditz laguntzailea zuen irizpide nagusi horrelako sailkapeneterako.

2 Gogora dezagun azoken eta erromerien garrantzia euskal dialektologiako kontuetan.

Azkenik, eskerrak eman nahi nizkieke, nola ez, nire informatzaileei, Ramon Gabikagojeaskoari eta Lurdes Irigoieni, eta baita Alaine Agirreri eta Leire Zabalari ere, transkribatze prozesuan iradokitako irakurketengatik.

Nire amama zenari, Eskolastika Gabikagojeaskoari, eskaini nahi diot lan hau.

2. GRAMATIKA

2.1. FONOLOGIA

2.1.1. AZENTUA

Ez du ezaugarri berezi handirik, ahula, hitz bakan batzuetan izan ezik.

Esan dezagun eskuarki bigarren silaban (ezkerretik hasita) kokatzen dela silaba azentuduna.

Zenbait aditz-izenetan lehenengo silabak du azentua: *éitxeko, íkusten, etab.*

Hitz berezi batzuetan: *Bílboko, éitxe* (aita)

Pluraleko erakusleek lehenengo silaban daramate azentua: *ónek, órrek, árek.*

Erdal mailegu berrietan, normala denez, azentuak jatorrizko ereduari jarraitzen dio, hau da, askotan gaztelaniazko hitz agudoetan hor bertan (azken silaban) dugu azentua hizkera honetan: *kamión, además.*

2.1.2. BOKALAK

Bi dira bokalen sailean ikusi ditugun prozesu nagusiak:

◆ **a > e asimilazioa (indartsua)**

Asimilazio bokaliko hau aurreko silabako *i* edo *u* bokalen agerpenak eragiten du.

Ikus ditzagun adibide batzuk:

- **i(C)a > i(C)e:** *anaixe, antziñe, bidxidxe, di(r)e(s), eiñde* (eginda), *Gabiketik, Gerniken, goixen* (goian), *idxe* (ia), *ilde* (hilda), *ixen, politxe...*³
- **u(C)a > u(C)e:** *aldatute, alkilaute, billurtute, eskribitute, gure* (nahi), *inkomunikaute, jubilaute...*⁴

Prozesu morfo-fonologiko hau indartsua dela esaten dugu honako testuinguru jakin hauetan gauzaten delako:

- a) **Artikulua:** *erritxue, gastie, gustixe, jaixek, mendidxe.*
- b) **Morfema barruan:** *bidxer* (bihar), *ider* (ilar), *ikesi.*
- c) **Morfemen mugak gaindituz:**

- **Kasu marketan (alatiboan):** *biarrire, burure, Donostire, mendire.*

³ Salbuespenak ere badira gure laginean: *tasixa, fabrika, indidxak...*

⁴ Salbuespenak ere badira gure laginean: *edadekuak, gausa, gura, kamiñua, kontauta...*

- **Bet:** *apurtxu bet, arri bet, esaldi bet, txiki bet.*
- **Eta:** *eskondu te.*

◆ **Apokopea**

Euskal Herri osoan gauzatzen den aldaketa hau, eremu honetan ez da bereziki indartsua, baina baten batean agertzen da (*etorri > etor*): *etor sala, etor siren.*

2.1.3. DIPTONGOAK

Ez dugu topatu diptongoei soilik dagokien prozesu oso berezirik. Hala ere, honako bi joera hauek aipagarriak dira:

◆ **-au > -eu (> -e) asimilazioa**

Ez da arauzkoa, baina joera handia dago, nahiz eta guztietan ez den gauzatzen. Beheranzko diptongoak dira hauek. Ikus ditzagun adibideak:

- a) **Aditzen forma burutuan:** *abixeu, altzeu, apunteu, estudixeu, kanbidxe(u)* (< **kanbiau*), *kantew⁵, kantseu.*
- b) **Adizki jokatueta:** *deu* (EDUN: **dadu > dau*), *ne(u)* (nago), *deus⁶* (daude).
- c) **Morfema barruan:** *jeusi.*

Ikus dezakegunez, prozesua ez da erregularra, baina maiztasun handiko hitzetan agertzen da. Badirudi prozesua hizkera honetan oraindik indarrean dagoela (ikus *ne(u), deus⁷...*), baina hiztunak hizkera "zainduago" (motelago) bat erabiltzen duenean gaitzesten duela.

Mendebalde osoan arruntak diren 'deko' gisako adizkiak prozesu berberetik datoz:

**daduko > *dauko > deuko > deko*

◆ **o eta u neutralizazioa i baten ondoren: -i- + -o- > -iu-**

Hauek goranzko diptongoak osatu ditzakete: *liu, matrimoniu.*

5 'Kantau' ere agertzen da.

6 Sarriago 'daus', baina inoiz 'deus' esaten du.

7 'au' diptongo horiek jatorriz 'ago' zirelako. Hortaz, 'ago' > 'au' > 'eu'.

2.1.4. HIATOAK

Hiatoei erreparatuz, esangura handiko prozesuak igarri daitezke.

Honako bilakaera hauek gauzatzen dira:

- ◆ **-a + -a > -ie:** *asie* (aza), *egunien*, *eskolie*, *goixie*, *jentie*, *kotxie*, *palie*.

Oso emankorra da hitz berrietan ere agertzen delako (*banderie*, *deportie*...).

Batzuetan artikularen erabateko asimilazioa ere gauzatzen da: *etxi(e)*, *nintzeni(e)n*, *normali(e)n*.

Bokalen sailean ikusi dugun asimilazioarekin (-a > -e / i_) zerikusia dauka.

- ◆ **-e + -a > -ie:** *bier*⁸, *gastiek*, *neurie*.

Bokalen sailean ikusi dugun asimilazioarekin (-a > -e / i_) zerikusia dauka.

- ◆ **-i + -V- > -idxV-:** *baserridxe*⁹, *bidxer* (bihar), *dakidxenak* (dakitenak), *gidxau* (gehiago), *goidxen* (goian), *idxe* (ia), *indidxak*, *kanbidxe(u)* (< **kanbiau*), *mendidxe*, *premidxu(e)* (premioa).

Arau hau ihartuta omen dago Gabikako hizkeran, hitz jakin gutxi batzuetan baino ez delako gauzatzen. Hurrengo bilakaera hitz berriekin erabiltzen omen da:

- ◆ **-i + -V- > -ixV-:** *anaixe*, *eguskixe*, *estudixeu*, *fotografixek*, *gustixe*, *jaixek*, *tasixa*, *txikixe*.¹⁰

- ◆ **-u/-o + -a > -ue:** *antziñekue*, *erretratue*, *erritxue*, *euskerakuek*, *porrue*, *segidue*.¹¹

Lehenik, *o* eta *u* neutralizatzen dira bokal baten aurrean, eta geroko bilakaera bokalen sailean ikusi dugun asimilazioarekin (-a > -e / u_) zerikusia dauka.

Beste urrats bat haratago hurrengo araua izango litzateke:

- ◆ **-u/-o + -e- > -u-:** *asteburutan*, *barkutara*, *basutara*, *juteko*, *liukin*, *ordun*.

8 'Biar' (behar=lana) ere badago.

9 'Baserrixe' ere badago.

10 Mailegu berrietan emankorra. Ikus *tasixa*, *fotografixek*.

11 Baina ez beti. Batzuetan -ua- ere: *edadekuak*, *kamiñua*.

2.1.5. KONTSONANTEAK

Kontsonanteen sailean hasteko, aipatu behar Mendebalde osoan gauzatzen den **txistukari**en **neutralizazioa**:

- ◆ **s/z > s**: *es, san (zen), senbat, sosiedade*.
- ◆ **ts/tz > tz**: *netzon (neutson), pertzona*.

Gainera, Erdialdean ez bezala, txistukari frikariak bere horretan mantentzen dira n/l/r baten ondoren, eta ez dira afrikatzen:

- ◆ **n/l/r + txistukari frikaria**: *il san, illunsar*.

Bestelako hots kontsonantikoei dagokienez:

- ◆ **j [x] hotsa hitz hasieran**: *jaixek, jakin, jantzi, joan*.
Kasu arraroak: *jakiana* (zekiena), *jantza* (dantza).
- ◆ **dx [dʒ] hotsa hitz hasieran**: *dxat* (zait), *dxixarri* (jesarri).
Hots berbera *i* baten ondoren¹² batzuetan agertzen zaigu hiatoen sailean ikusi dugun legez.

Bestalde, sabaikaritze prozesu batzuk nabariak dira hizkera honetan:

- ◆ **Asimilazio bustidura indartsua**

Hainbat testuingurutan gauzatzen da asimilazio bustidura Gabikako euskaran.

- a) **Erraz bustitzen diren kontsonanteak**: -n-, -l-
 - **i- + -nV > iñV**: *ariñeu* (arinago), *giñen, iñor, miñutu, piñudi*.¹³
 - **i- + -lV > illV**: *illabete, milla, pillo*.
 - **Vj- + -nV > V(j)ñV**: *baña, baño, oñes*.
 - **Vj- + -n# > V(j)ñ# (hitz bukaeran)**: *eiñ* (egin), *oaiñ, oiñ* (orain).
 - **Vj- + -lV > V(j)llV**: *allegau, koillarak*.

¹² Oso hotsa berezia eta adierazgarria dugu hau. Bermioko hizkeran agertzen da.

¹³ Hitz bukaeran ez dirudi gauzatzen denik ("esiñ esan").

b) Zailago bustitzen diren kontsonanteak: -t-

- **i- + -tV > itxV**: *dxixarritxe* (jesarrita), *etorritxe*, *garbitxu*, *ipiñitxe*, *politxe*, *sarritxen* (sarritan).
- **Vj- + -tV > V(j)txV**: *eitxeko* (egiteko).

c) Multzo kontsonantikoak: -nd-, -ld-

- **Vj- + -ndV > V(j)ñdV**: *eiñde* (eginda).¹⁴
- **i- + -ldV > illV**: *billur* (beldur).¹⁵

◆ **Mendebaldeko txistukarien bustidura berezia**

Testuinguru batzuetan gauzatzen da, emaitza desberdinekin:

- a) **i + z/tz > idx**: *bidxi*¹⁶, *bidxidxe* (bizitza).
- b) **i + z > ix**: *bixi*, *elixie* (eliza), *ixen* (izan).
- c) **i + tz > itx**: *bixitxen*, *eukitxen*, *itxi* (*itzi < *eitzi < *eutzi).
- d) **Vj + z > V(j)x**: *goixie* (goiza).

- ◆ **Erdal -ción, -sión > -siño**: *diputasiño*, *estasiño*, *inspeksiño*, *señalisasiño*, *telebisiño*, *tradisiño*.

Garatu gabeko arauetan eta kontu txikiagoen artean honako hauek ditugu:

- ◆ **Erdal herskari ahoskabeak mantentzen dira**: *jentie*, *kurtze*, *parkatu*.
- ◆ **Euskal hitzetako -r- (> -d-) zaharra gorde da**: *edur* (elur), *ider* (ilar).
- ◆ **Badirudi bokalarteko -VrV- / -VIV- nahasten direla**: *arik eta / alik eta; itxosora / itxosola; solo / soro*.

¹⁴ Beraz, ez dago bustidura indartsurik hemen, 'eiñdxe' edo holako bat agertzen ez delako.

¹⁵ Aldera berezi bat da hau, eta bustidura ez da emankorra -ld- multzoarekin: 'ilde' (eta ez 'illdxe').

¹⁶ Eta 'bixi' ere.

2.2. MORFOLOGIA

2.2.1. IZEN MORFOLOGIA

DEKLINABIDEA

◆ **Soziatiboa: -gas eta -kin lehia**

Maizago erabiltzen omen da -gas, gehienbat singularrean edota mugagabeen: *bategas, edurregas, onegas, orregas, urtegas...*

Hala ere, -kas ere behintzat agertzen da: *edurrekas*.

Pluralean -kin dugu hauetan: *asulejokin, liukin*.

Bestetik ere, erakusleekin eta *bat*-ekin ere -kin dugu: *batekin, orrekin*.

◆ **Hurbiltze alatiboa: -ra arte (ez -rantz, -runtz)**

Balio denborazkoa arrunta da Euskal Herri osoan (*illuntzera arte, urtera arte*), baina hiztunak espazioari aplikatuta ere sarritan erabiltzen du (*Alemaniarra arte, kamiñura arte, Parisera arte*).

◆ **Ablatiboa: -tik/-dik**

Ez da gauza harrigarria, baina. Ablatibo zaharraren aztarnak egon daitezke: *ameti*.

◆ **Inesiboko baten (vs batean, batetan)**

◆ **Datiboan: bateri (eta ez bati)**

ARTIKULU HURBILA

◆ **Mendebaldeko euskalkian gorde da: *sosiedadeori, berton***¹⁷

ERAKUSLEAK

◆ **3. graduko *a*¹⁸ eta *arek* (eta ez *hura/hark*):**

ta iñori eser es esan a ixen san

esaten dost niri arek

Maizago *bera* erabiltzen du *a*-ren ordez.

¹⁷ Hiztunak beti 'bertan' aditzondoarekin kontrastatzen du.

¹⁸ 1. gradukoa: *au*; 2. gradukoa: *ori*.

◆ **Erro berbereko erakusleak singularrean eta pluralean:**

Azentuaren bidez bereizten dira:

onék (honek), *orrék* (horrek), *arék* (hark) vs *ónek* (hauek), *órrek* (horiek), *árek* (haiek).

◆ **Lekuzko kasuetan:** *emen/amen, or, an; ona, orra, ara.*

◆ **-(t)xe atzizkia oso emankorra da:** *orixe, ortxe, ementxe, oiñtze.*

IZENORDAINAK

◆ **Mendebaldeko pertsona izenordain indartuak:** *neuk, geuk...*

◆ **Genitiboazko pertsona izenordainak:** *nire, neurie, gure, sure...*

2.2.2. ADITZ MORFOLOGIA

ADITZ JOKATUGABEAK

◆ **Erdal -ado > -au/-eu:** *akabau, allegau, apunteu, enbarkau, estudixeu, jubilau, kanteu, kantseu, konteu, pasau...*

◆ **Partizipioa -ta (ia beti):** *aldatute, alkilaute, billurtute, eiñde, eskribitute, inkomunikaute, jubilaute, urtenda...*

◆ **Aditz izenak (eta forma burutugabeak):**

a) **-n / -rri / -si / -Ø¹⁹ > ten:**

- *egoten, eitxen, esaten, ixeten, juten...*
- *etorten...*
- *asten, ikusten...*
- *atarateko, erreteko, ikarateko...*

b) **-au/-eu > -etan:** *akordetan, kantetan...*

c) **-tu > -tuten²⁰:** *esaututen...*

d) **-tu / -ni > -tzen:** *artzen, grabatzen, pasatzen, ipintzen...*

19 Eta honako hauek: 'bixitxen', 'eukitxen'?

20 Aditz luzeak, nonbait?

ADITZ JOKATUAK

Aditz jokatueta orokorrean agertzen diren ezaugarri komunak:

- ◆ **-(e)s pluralgilea adizki guztietara hedatu da:**
dogusenak, nauesen, dotes²¹, ebasen, dekotes, gendusen...

- ◆ **-e NORKeko pluralgilea:** *dakidxenak* (<*daki-e-(e)nak), *dostie* (<*dosta-e)

- ◆ **1. pertsonako -t ez da ahostuntzen:** *dotes/dotas...*

ADIZKI LAGUNTAILEAK

- ◆ **NOR-NORK (EDUN)**
 - a) **-o-/eu- errokoak orainaldian:** *dot, dosu, deu, dogu...*
 - b) **-au- erroa lehenaldian:** *nauen, nauesen...*
 - c) **-nd-dun formak lehenaldian:** *gendun, gendusen...*
 - d) **z-rik gabeko 3. pertsonako adizkiak lehenaldian:** *eban, ebasen...*

- ◆ **NOR-NORI-NORK (EUTSI)**
 - a) **EUTSI errokoak dira.**
 - b) **-o- gailendu da orainaldian (ez -eu-, -au-):** *dost(e), esa(n)oste...*
 - c) **-e- lehenaldian²²:** *netzon, (e)tzon, se(u)skun...*
 - d) **NORI-ko 3. pertsona singularreko morfema -o- (eta ez -a-):** *netzon, (e)tzon...*
 - e) **z-dun formak agertzen dira 3. pertsonako lehenaldiko adizkietan:** *irakatsi se(u)skun*

- ◆ **NOR (IZAN)**
 - a) **Mendebalde eta Erdialde osoan bezala zan/zala:** *ixen san, etor sala....*
 - b) **1. pertsona singularreko adizkia orainaldian:** *nas*
 - c) **-(e)s pluralgile pleonastikoa 3. pertsona pluraleko adizkia orainaldian:** *di(re)s*
 - d) **a > e asimilazioa dela eta, -en-ekin amaitutako adizkiak lehenaldian:** *nintzen, giñen, zi(re)n....*

- ◆ **NOR-NORI**
 - a) **dx-dunak dira (eta ez j-[x], y-, z-, d-...):** *arri bet burure jeusi dxat*

21 'dotas' ere bai

22 'emoskun' batean aditz nagusia eta aditz jokatua nahastu dira: emo(n)(eu)skun

◆ **Ahalera (NOR)**

- a) 'leike' (liteke) erabiltzen da: *izan leike* (<*ledike)

ADIZKI TRINKOAK

◆ **EGON**

- a) **Orainaldiko -au- (*-ago-) errokoak:** *jubilaute ne(u)* (< *nau*), *dau*, *daus*, *gaus*...
b) **-(e)s pluralgilea (ez -de):** *gaus*, *daus*...
c) **Lehenaldian -an:** *kantseu giñan* (< **ge(u)nan*?)

◆ **JAKIN**

- a) **Lehenaldian j- [x]:** *jakiana* (zekiena)

◆ **EROAN**

- a) **-roa- erroko adizkiak (eta ez -roie-):** *da(r)uagu*

◆ **EUKI**

- a) **-eu- > -e- erroko adizkiak orainaldian:** *dekot*, *deko*, *dekogu*, *dekosu*...

◆ **JOAN**

- a) **-oie- erroko adizkiak:** *banoie*...

JOKAERA BEREZIKO ADITZAK

- ◆ **urten aditza iragankorra:** *urten gendun*
- ◆ **itxi aditza NOR-NORI-NORK sailekoa (ez NOR-NORK):** *itxi netzon* (utzi nuen)
- ◆ **Arrotza da ari izan. Haren ordezt -t(z)en + EGON:** *bixitxen daus*
- ◆ **gure ixen (nahi izan):** *e(s) nauen estudixeu gure ixen*
- ◆ **bi(er) ixen (behar izan) beti iragankorra:** *Bilbora joan bi(er) ixeten nauen*

2.3. SINTAXIA

Sintaxia arloan gertatzen direnen artean hauexek ezaugarri aipagarrienak:

- ◆ **Kausazko perpausetan *-(e)ta* (arrotza da *bait-*):**
berbetan esiñ esan erderas ta

- ◆ **Kausazko perpausak osatzeko *selanik*:**
selanik amen egon dan Gabikatarra ixen san
(amen egon dan Gabikatarra izen zenez)

- ◆ **Erakuslea izen sintagmaren ezkerrean: *ori* *sosiedadeori***

- ◆ **Bai/ez zehar galderak baldintzakoekin nahasten dira; baina NZ zehar galderak ez:**
esdakit badau (ez dakit dagoen)
badakisu ser dauen (badakizu zer dagoen)

- ◆ **Mugimenduzko aditzen osagarria *-t(z)en* (ez *-t(z)era*):**
saltzen joaten gara

Zenbait denborazko egitura:

- ◆ **Aditz jokatua + *-ni(e)n* (arrotza da *-elarik*):**
txikixe nintzeni(e)n

- ◆ **arik eta... denborazko muga markatzeko**

- ◆ **Partizipioa *-ta* ekintzaren burututasuna denboran markatzeko (eraikuntza absolutua):**
amairu urte eiñde

- ◆ **Aditza + *baño ariñeu* denborazko aurrekotasuna markatzeko:**
juan baño ariñeu (joan baino lehen(ago))

3. LEXIKOA

Mendebaldeko euskalki osoan gertatzen den legez, badira desberdintasun nabariak lexikoaren arlotik. Bi multzotan eskainiko ditugu ("hitz bereziak" eta "aldaerak").

HITZ BEREZIAK

Zenbait hitz **mendebaldeko eremu osoan** arruntak dira, hauexek dira:

abade, akabau, akordau, allegau, apur, azoka, bapes [bat bere ez], *berba, berbetan, biar* [behar], *bitz* [bits], *domeka, edade, eruen* [eroan], *eskribitu, gure ixen* [gura izan], *jeusi* [jausi], *kantseu* [kantsau], *ondiño* [oraindino], *ortu, pastore, praka, sapu* [zapo], *sarrau* [zarratu], *segidue(n)* [segiduan], *selan*.

Sortaldeko azpieuskalkikoak: *ipini*.

Sartaldeko azpieuskalkikoak: *antza* (badirudi), *motz* (itsusi).

Bertako hitzak: *altzeu* (igo), *ariñeu* [arinago] (lehenago), *dxixarri* [jesarri], *indidxak* (gaztainak), *kamiño, kanbidxe(u)* [kanbiau], *osta be* (berriro), *pa(r)atu* (jarri), *sarritxe(n)* [sarritan], *selanik* (nola), *txorimamu* (txorimalo).

ALDAERAK

Mendebaldekoak: *amen* (hemen), *andra, atara, barik* [bagarik], *be* [bere], *billur* (beldur), *busterri* [buztarri], *edur, emon, gaba, gitxi, itxi* (utzi), *jente, olan, parkatu, solo, -txu* (atzizki txikigarria), *urte(n)* (irten).

Sartaldeko azpieuskalkikoak: *baia* (baina).

Sortaldeko azpieuskalkikoak: *aitxitxe, artun* (hartu), *eskuma, kipula, maixtra* [maistra].

Bertako hitzak: *edurtze* [elurte], *eitxe* [aita], *ider* [idar], *itxoso* (itsaso), *jantza* (dantza), *kurtze* (gurutze).

4. ONDORIOAK

Sarreran aipatu bezala, Gabika bereizitako hizkera batzuen mugan kokatzen da bete-betean.

Batetik, mendebaldeko euskalkiari bere osotasunean begira, bertako eskualdea, Busturialdea, sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkien ukipen eremuan aurkitzen da. Horrek dakar bertako hizkerek sartaldetik zein sortaldetik atzematen dituztela ezaugarriak.

Bestetik, Busturialdeko eremuan bertan, Bermio eta Gernika ditugu tarteko hizkera honen erdigune nagusiak. Bertako beste herri hizkerak bi horien artean, batetik bestera, mugitzen dira, Bermiotik zein Gernikatik eraginak jasoaz.

Gauzak horrela, esan behar da Gabika Lea-Artibaiko mugan ere egon badagoela, eta hortaz, **sortaldeko azpieuskalkitik hurbilago**, Bermioko edo Gernikako hizkerak dauden baino.

Pedro de Yrizarrek Bermiotik gertuago kokatzen zituen Ereño eta Gabika, baina garai hartatik hona egoera aldatu ahal izan da.

Azter dezagun, beraz, zer ezaugarri betetzen dituen Gabikako hizkerak, sartaldekoak eta sortaldekoak:

SARTALDEKO EZAUGARRIAK

- ◆ **a > e asimilazioa (i, u bokalek eraginda) indartsuagoa**

Gabikan nabarmena da asimilazio mota honen indarra.

- ◆ **dx- hitz hasieran (kostaldekoa)**

Hots hau ez da ohikoa hitz hasieran Gabikan baina adibideren bat badaukagu (*dxixarri*), Bermioko eraginaren erakusgarri, seguruenez.

- ◆ **Partizipioetan -tuten**

Egia esan, ez da Gabikan asko agertu, baina adibide bakan bat daukagu (*esaututen*).

- ◆ **Forma burutuetan -i galtzeko joera Bizkaiko sartaldean**

Etorri aditzarekin soilik agertu zaigu (ikus goian "apokope" sailean).

SORTALDEKO EZAUGARRIAK

- ◆ **Arauzkoak hiatoen bilakaerak: e+a > ia; o+a > ua (Sartaldean arrotza); i+a > ixa, idxa**
Gabikan hirurak betetzen dira.
- ◆ **Epentesia -dx- Bizkaiko ekialdean (Bermion ere); -x- Lea-Artibain (eta Gernikan).**
Gabikan biak ditugu, baina lehena ihartuta, eta bestea emankorra.
- ◆ **j- [x] hotsa hitz hasieran**
Lehenago erakutsi bezala, *jakin, joan, jantzi* hitzetan Gabikan.
- ◆ **Asimilazio bustidura indartsua**
Nahiko indartsua da Gabikan ere.
- ◆ **Soziatiboan -kin pluralean**
Gabikan ere, nahiz eta *-kas* ere dagoen.
- ◆ **Joan aditzean -oie- erroko adizkiak**
Hau Gabikan agertzen da, nahiz eta Gernikan, esaterako, ez. Eroan aditzean ez da gauzatzen.

BIZKAIKO EZAUGARRIAK

- ◆ **Bizkaiko alderdi zabalean -au > -eu; arauzkoa partizipioetan**
Gabikan joera dago, baina ez da arauzkoa ezta partizipioetan ere.
- ◆ **Bizkai gehienez i+z > ix**
Bilakaera hau ondo gauzatzen da Gabikan.

Gernikako hizkerarekin alderatzen badugu hainbat desberdintasunekin topatzen gara:

- ◆ Gernikan ez dago artikularen asimilaziorik, Gabikan bai (-i(e), -u(e)).
- ◆ Gernikan o+a > oa, Gabikan arauzkoa da -ua-/-ue-
- ◆ Gernikan partizipioetan -i galtzen da; Gabikan oso adibide gutxitan.
- ◆ Gernikan joan eta eroan -oa- errokoak, Gabikan joan -oie-, eroan -rua-.
- ◆ Gernikan -au > -eu: partizipioetan batez ere, Gabikan kasu batzuetan bakarrik.
- ◆ Gernikan NOR-NORI saileko adizkietan y-, Gabikan dx-.

Bermioko hizkerarekin alderatzen badugu hainbat desberdintasunekin topatzen gara:

- Bermion -a hitz hauetan: *lora, abada, kotxa*; Gabikan ez.
- Bermion -a organikoa galtzen da. Adibidez, *fameli*; Gabikan *famili* hitzean ere.
- Bermion ez dago erakusle eta aditzondo indarturik: *orixe, ortxe*. Gabikan barra-barra.
- Bermion izan aditzean orainaldian 1. pertsona singularra *nai*; Gabikan *na(s)*.
- Bermion izan aditzean lehenaldian *naitxen*; Gabikan *nintzen*.
- Bermion NOR-NORI sailean dx- ere, baina *dxast*, Gabikan *dxat*.
- Bermion NOR-NORK saileko 3. pertsona singularrean *dau*; Gabikan *deu*.
- Bermion NOR-NORKeko lehenaldian *nauen*, Gabikan bezala, baina Gernikan *neban*.
- Bermion joan aditzean 1. pertsona singularreko *nuen* (-oa- errokoa); Gabikan *noie*.
- Bermion eduki aditzean *dako, dakot*; Gabikan *deko, dekot*, Gernikan bezala.

Bukatzeko, aipatu dezagun lexiko aldetik Bermiorekin eta bereziki Nabarnizekin hitz mordo bat partekatzen duela (adibidez, *kanbidxe, idxe, dxixarri, sarritxe, kamiñu, indidxak...*)



5. BIBLIOGRAFIA

Arejita, A. 2002, *Bizkai euskeraren jarraibide liburua*, Bilbo: Labayru.

Barrutia, E. 1995, *Bermioko euskararen ezaugarri morfosintaktiko batzuk*, in ASJU 28.

Ensunza, A. 2009, *Gernikako euskararen azterketa dialektologikoa*, HAL archiver ouvertes.fr.

Martinez de la Cuadra, A. 2006, *Nabarniztarren berbakera*, Nabarniz: Nabarnizko Udala.

Yrizar, P. 2008, *Morfologia del verbo auxiliar vasco*, Bilbo: Euskaltzaindia.

Zuazo, K. 2014, *Euskalkiak*, Donostia: Elkar.

6. LEKUKOTASUNAK

Hona hemen Ramon Gabikagojeaskoa Naberani egindako elkarrizketaren transkribapena.

- Bueno, ni amen len baserridxen bidxi nintzen len, arik eta, eskolara orra sosiedade ori [grabatzen dau?] ori sosieda(de)ori ixen san gure eskolie, bai, ameti beti eiñ orra eskolara, oñe(s), ba amairu urtera arte, ni amairu urte einde, urtenda oaiñ eskolatik segidue ya urrengo egunien ona basutara, ona piñudi daus amen asko, ba or basutara piñu botatzene(r)a, amairu urtegas, amalau eiñ orduko.
[- Behar egitera?]

- Bai, e(s) nauen estudixeu gu(r)e ixen gidxau, e(s) nauen estudixeu gu(r)e, ikesi gidxau, eta biarri(r)e.

Eta or pasau nauesen ba urte bi, iru urte edo ólan, ta gero, biar gogorra ixen san ta joan nintzen itxosora barkutara. Ba bai, barkutara, enbarkau nintzen Alemanian, eta; erderas idxe berba bat jakin barik, idxe berba bapes, gorri-gorri-gorri pa(r)aten nintzen erderas éitxeko, ta ariñeu, ara juañ baño ariñeu, BÍlbora juañ bi(e)r ixeten nauen pasaporte-ta atarateko ta "aber ustezkekieretal?". Billurtute berbetan esiñ esan erderas ta, bueno eiñ nauesen eiñ biar danak eta joan nintzen ta eiñ nauesan beste... iru urte maleta bategas ta allegau giñen. Iru pertzona giñen..... Alemaniara arte.

Joan nintzen amendik Donostire, Donostin "topo", "topo" andik Hendaiara, Hendaian artun trena, ta gaba gusti-gusti-gustixe ólan dxixarritxe Parisera arte, urrengo goixie Pa(r)ixen, kantseu-kantseu giñan, tasixa artu, bueno usteut se esta(k)it se eiñ gendun be, tasixa artu beste estasiño batera juteko, Alemaniara gero artzeko an, da andik Alemaniara eta bueno, allegau giñen, nauesen iru edo lau urte itxosotik eta osta be ba gero itxi netzon eta gero emen asi nintzen Gerniken ya fabrika baten: "Dalia", sarra(s)ute dau ya, egon giñen milla ta berreun obrerora arte egon giñen, biarrien, egunakada baten bai, Alemaniara koillarak eta tenedoreak eitxen zi(re)n or ta or eiñ nauesan hamabi urte. Gero ori ba asi san liukin, eta urte(n) (gen)dun kanpora. Eta gero Izagirre, txoferra asi nintzen kamion-grua batekin eta jubilaue arte ori eiñ dot, eta ba nire bidxidxe gitxi gorabera ólan ixen da, baña beti amen ba baserrixe(n) apurtxu bet ta Gerniken [*emazteak hitz egiten du*], gero Gerniken joan nintzen bixitxen an lana topau nauenien, ba bertan bixitxen egon giñen bertan, egon giñen bixitxen, esta?

[- Ta etxe bat dekozue hor Gernikan?]

- Bai, bai, bai, eta ba, oiñ jubileu na(s), ta nik amen gure dot ta bearba(da) au, onek ba bestonde etorri gara ta oiñ amen gaus, senbat denbora da(r)uagu amen? Urte t'erdi, igual bai, berton, urte t'erdi amen. Su(r)i sortu edurregas da amen gaus egon gara oiñte... [*emazteak hitz egiten du*]

- Udan, bai, lasai dekosu, eguskixe artu gu(re) ba(do)su, amen gausa gitxi dau, badakisu ser dauen! Atzen kotxe bat pasatzen da, ta es dau eser, baina bueno! Gernike dekogu amendik kotxiegas

amabi-amabost miñutu, gaus.

[- Eta azokara joaten zarie?]

- Bai, astelenetan bai, normali(e)n bai. [*emazteak hitz egiten du*]

- E, saltzen ez! Es, es! Erosten! Neuk artzen dotas amen tomate batzuk eta soloan traktor txiki bet dekot eta orregas, kotxiek artzen dotes beiñ ta ... baña... eta ba gitxi gorabera ólan ixen da, oaiñ jubilaute ne(u) ta oaiñ ementxe. Egon gara oiñtxe onegas edurrekas egun d'erdi edo, argirik barik eta kotxie esiñ altzeu kamiñora; "inkomunikaute" esaten dana, egun bat eta erdi eiñ dogus.

Bai, bai. Ta atzo paliegas garbitxu nauen orra kamiñura arte, kotxe txikixe ondiño goidxen dekot neuk, neurie bajatu barik. Bai, baña oaiñ ondo dau kamiñua. [*emazteak hitz egiten du*]

Ta erri txikixe da, ta emen bertan egoteko ba da bueno beti pss! Badau jentie bertan bixi dana, ba bai, beti bertan bixi dana, matrimoni u gure edadekuak daus egon bi, iru, lau, bost, sei... [*emazteak hitz egiten du*]

Bílboko jentie, Bílbo edo ortiko jentie be badau! Emen erosi etxie, baserrixek erosi eta bertan bixitxen be badaus, osea, kontinuo bertan bixitxen be badaus.

- Amen baserrix... ariñeu ba Amerikan eiñ eban, bera bixi ixen san urte pillo bat Amerikan bai, Boixen, Idahon, erritxue bera or egon sana, telebisiñun egon sala baten edo baten, "boinamapa", or ebasen bera urte pillo bat pastore, bai, gero etorritxe an eskondu san amaga(s) eta gero amen bixi san. Bixi dira emen. [*emazteak hitz egiten du*] Bai, bai eskondu te gero be bai, bai, bai joan san urte pillo bat andik. An dekogus famili pillo bat, esaututen es dogusenak, lengusu asko dekogus an.

[- Amerikan?] [*emazteak hitz egiten du*]

- Lau anaixe ixen sien gure éitxe-ta, ta bi bertan geratu sin, ta bi etor siren, ta gero an famili guxtixe-ta an daus, etorten di(e)s batzutan, etorten di(e)s batzuk, bai, [*emazteak hitz egiten du*] gastiek etorten diren. Amen illabete-ta edo... etorri dies? Etorri dies batzuk. [*emazteak hitz egiten du*]

- Esaten dost niri arek, oiñ ilde dau baia, Jose Ramonek, kontau e(u)stan baten etor sala sure edadeko gaste bat ona... ta iñogas kontauta be, amen hor goiko kamino-tabernie len ixen sana kamiñokotan do(g)una, or dau, egon san, nik es dakit ointxe badau, orain asulejokin eskribitute Gabika, ta iñori eser es esan a ixen san erretratu(e) atara, ta iñogas gugas berbarik es eser ein barik joan san osta be. [*emazteak hitz egiten du*]

- Seguramente amen es eban jakingo erderas be bape be arek, ingeles danak, ta amen au eiñgotxien danak eta erretratu(e)-ta ein tzon, ba selanik amen egon dan Gabikatarra ixen san bera, ta iñor be topo barik, iñori sertu barik, abixeu, ese(r) be (e)s eiñ barik.

- Gu ordun (sasoi artan) Gerniken egon giñen, además, ona etorten giñen asteburutan. Bakarrik asteburutan.